BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4261

EBAZPENA, 2012ko uztailaren 27koa, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendariarena, zeinen bidez Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari eskuordetzen baitzaio sail horren menpeko administrazio-zentroak 2013-2014 urtean goi- eta behe-tentsioko elektrizitatez hornitzeko kontratazioa (Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza Osasun eta Kontsumo Sailaren kontratazio-organoa da).

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuko V. kapituluan eta lehenengo xedapen gehigarrian, eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 18.e) artikuluan xedatutakoaren arabera, Baliabide Orokorren Zuzendaritzari dagokio kudeaketa zentralizatuko eraikinetarako erabilpen orokorreko arloak edo zerbitzuak kontratatzea, betiere Baliabide Orokorren Zuzendaritzari egotzi bazaizkio.

Era berean, 472/2009 Dekretuaren 18.a) artikuluak Zuzendaritza horri ematen dio eskumena, era zentralizatuan eskuratu behar diren ondasun eta zerbitzuak kontratatzeko prozedurak garatzeari begirako proposamenak egin ditzan.

Gaur egungo ikuspegiaren arabera, zerbitzuen kudeaketa hobetu eta gastu publikoa arrazionalizatu egiten du, Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren menpeko kudeaketa zentralizatuko eraikinak, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren gainerako eraikinak eta Eusko Jaurlaritzari eta haren erakunde autonomoei atxikitako eraikinak goi- eta behe-tentsioko energia elektrikoz hornitzeko kontratazioa modu zentralizatuan egiteak.

136/1996 Dekretuaren 19. artikuluak aukera ematen du Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren eskumenak kudeaketa zentralizatukoak ez diren beste eraikin batzuetara hedatzeko. Hitzarmen bidez, administrazio klausula zehatzen pleguetan aurreikuspen berariazkoa ezarriz edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean jasotako formulen bidez gauzatuko da hedapen hori.

Gasaren horniketa –lehen aipatu eremuan– modu zentralizatuan kontratatu ahal izateko formularik egokiena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 13.1 artikuluan eskumenen eskuordetzerako jasotakoa da, honako hau xedatzen baitu:

«1.– Herri-administrazioetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzan eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira –nahiz eta bata bestearen mendekoak ez izan–, edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden zuzenbide publikoko erakundeetakoak badira».

Horregatik, 472/2009 Dekretuaren 4.2.c) artikuluak Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari esleitzen dizkion kontratazio-arloko eskumenak kontuan hartuta, eta Herri Administrazio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuaren 14.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzak ditu, bere titularraren bidez, Administrazio Orokorrean indarrean dagoen araubide organikoak sailen kontratazio-organoei emandako eskumenak, betiere, zenbatekoa dela-eta

Jaurlaritzaren Kontseiluari dagozkion ahalmenei eragin gabe eta kontratazio-arloan Euskaditik kanpoko ordezkaritzetako titularrei dagozkien ahalmenei eragin gabe.

EBAZTEN DUT:

I.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari eskuordetzea ebazpen honen eranskinean adierazten diren eraikinak 2013-2014 urtean goi- eta behe-tentsioko energia elektrikoz hornitzeko kontrataziorako eskumena.

Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan jasotako honako arlo hauetara hedatuko da eskuordetzea, kontratuari aplikatu beharko baitzaizkio:

– Kontratuaren prestakuntza (II. liburua).

– Kontratuaren esleipena (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

– Administrazioaren eskuduntzak, aldaketa, iraungitzea, lagapena eta azpikontratazioa, izaera orokorrarekin IV. liburukiko I. tituluko I. kapituluan aurreikusten direnak, eta izaera partikularrarekin –hornidura-kontratuetarako– IV. liburukiko II. tituluko IV. kapituluan aurreikusten direnak.

– Kontratua formalizatzea (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

II.– Kontratazio organoari dagozkion bestelako eskumenak; bereziki, emandako zerbitzuen burutzapenari onespena ematea eta horien ordainketa agintzea, organo eskuordetzailearen esku gelditukо dira.

III.– Eskuordetze hau indarrean jarriko da sinatzen den egunaren biharamunean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 27a.

Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria,
JOSÉ IGNACIO BAÑUELOS IBÁÑEZ.

ERANSKINA

Osasun eta Kontsumo Sailaren menpeko eraikinak:

Araba:	Done Jakue hiribidea 11, behea 2	Vitoria-Gasteiz
	Posta kalea 51, behea 1	Vitoria-Gasteiz
	Motxotekale, 6	Laudio
Bizkaia:	Errekalde zumarkalea 39, behea SC	Bilbao
	Bizkaiko Teknologia Parkea (502-L-02A eraikina) Ibaizabal Bidea	Derio
	Ixer kalea 2, behea 99	Amorebieta-Etxano
Gipuzkoa:	Nafarroa hiribidea 4, behea, 1	Donostia-San Sebastián
	Antso Jakitunaren kalea 35, behea 3	Donostia-San Sebastián